

Programazioa
**Zinema eta Ikus-
entzunezkoak**

2024



**AEBetako western
post-klasikoa eta garaikidea**

KOORDINAZIOA
Iñigo Marzabal



XII
Nosferatu bilduma

Programazioa ZINEMA ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

Asteroko Nosferatu zikloak berriro heldu zion Tabakaleran zinema-genero jakin bati, aurtengoan, **Western** estatubatuarrari (1962az geroztikoa). Hogeita hamar proiektzio liluragarri baino gehiago egin ziren, pantaila handiak gozatuak izateko pentsatutako zintak berreskuratuz.

Aurrera jarraitu zen Donostia Kulturak diruz lagundutako formatu ertaineko jaialdiekin, hala nola **Dock of the Bay XVIII** (ekainean), film laburren **Donoskino VIII** (urrian), eta **Itsaspeko 48. Zinema Jaialdia** (azaroan).

Zinema eta mendia uztartzen dituen **Meditour** zirkuituaren saioek (otsailean) ikusle ugari erakarri zituen 2024an ere. Bilboko beste jaialdi batekin lotuta, **Zinegoak** jaialdiaren Hedapena iritsi zitzaigun Donostiara (ekainean). **Emakumeen Etxearen** ziklo berria (urrian) arabiar emakume errealizadoreei buruzkoa izan da oraingoan, Tabakalerarekin lankidetzan.

Antzoki Zaharrean, bestalde, **ikus-entzunezko eta gizarte-arloko** askotariko galak izan ziren: Larrotxeneren ikasturte-amaiera, gure Bideoaldiarekin; AGISAS gala, *Bideak Zabalduz* proiektuarekin (urrian); **Begiradak** jaialdiaren amaierako gala (azaroan), baita **Klimametrage** gala ere (azaroan). Victoria Eugenia Antzokian, Atzegiko ikasleek haien trebetasunak erakutsi zituzten ekainean, ikasturte-amaierako galan.

Ikus-entzunezko ondorengo lanen aurkezpen publikoak ere egin ziren: **Balenciaga** telesailaren lehenengo kapituluak (urtarrilean); **Arantzazu** dokumentala (apirilean) eta Hika Teatroaren beste dokumental bat, **35 urte eszenara begira** (ekainean).

Tinko euskara elkartearekin hitzartuta, **Euskara Zine Aretoetara** programak ikasleak zinema-aretoetara eramaten jarraitu zuen, goizeko saioetan, adin-taldeen arabera hautatutako filmen gaiak lantzeko gida didaktiko eta guzti.

Azkenik, **Bang Bang Zinemak** bere programa bikoitz arrakastatsuak eskaini zituen, horietako bat Beldurrezko Zinemaren Astearekin lankidetzan, eta ez-ohiko beste bat, bere hamargarren urteurrenaren harira.



